

XXVII. IGANDEA URTEAN ZEHAR (C)

Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
neurrigabea izanik zeure maitasuna,
guk merezi eta uste dugun baino gehiago
betetzen dituzu gure eskariak;
isur ezazu gure gainera zeure errukia,
gaiztakeria guztietatik garbi gaitzazun
eta eskatzera ausartzen ez garena ere eman diezaguzun.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Ha 1, 2-3; 2, 2-4

Zintzoa, bere leialtasunak biziaraiziko du.

Habakuk Profetaren liburutik

Noiz arte, Jauna, egin behar dut nik deiadar,
eta Zuk entzuten ez?
Noiz arte, ni Zuri oihuka: «Gogorkeria!»
eta Zuk salbatzen ez?
Zergatik ikusarazten dizkidazu txarkeriak?
Zergatik erakusten nekeak,
gogorkeriak eta hondamendiak?
Zergatik sortzen dira haserreak,
eta izaten borrokaldiak?
Orduan Jaunak erantzun zidan:
«Idatz ezazu ikuskizuna;
irarri harlosatan, erraz irakur dadin.
Ikuskizun hori bere garaian gertatuko da;
hartara doa, ez du hutsegingo;
luzatuko balu, zaude zain;
etorriko baita berandu gabe.
Harrokeriaz beterik dagoena erori egiten da;
baina zintzoa, bere leialtasunak biziaraiziko du».

ERANTZUN SALMOA: Sal 94, 1-2. 6-7. 8-9

**R/. Entzungo al duzue gaur Jaunaren mintzoa:
«Ez gogortu zuen bihotza».**

Zatozte, pozez oiuhu degiogun Jaunari,
txalo degiogun salbamen dugun Harkaitzari.
Hurbil gakizkion aurrera esker-kantuekin,
jai degiogun txalo eta eresiekin. R/.

Zatozte, ahozpez jaurets dezagun,

egin gaituen Jaunari belaunika gakizkion.
Bera baita gure Jainkoa,
gu, berriz, Haren larreko herria,
Haren zainpeko artaldea. R/.

Entzungo al duzue gaur Haren mintzoa:
«Ez gogortu zuen bihotzak Meriban bezala,
Masa-egunean basamortuan bezala.
Zuen gurasoek han zirikatu ninduten,
Nik eginak ikusi arren, tentatu ninduten.» R/.

II. IRAKURGAIA: 2 Tm 1, 6-8. 13-14

Ez izan gure Jauna aitortzeko lotsarik.

San Paulo Apostoluak Timoteori

Anaia maite: Bizkor ezazu, nire esku ezartzeaz zeuregan duzun Jaungoikoaren grazia. Jaungoikoak ez baitigu beldurrezko espiritua eman; indar, maitasun, eta neurribidezko espiritua baizik. Ez izan, bada, gure Jauna aitortzeko lotsarik, ezta ni, Haren giltzapeko naizen hau, aitortzeko ere; bestela baizik, eraman itzazu nekeak nirekin batean berri onaren alde, Jaungoikoaren indarrez.

Har itzazu jarraibide, sinesmenari eta kristau maitasunari buruz, niregandik entzun dituzun hitz osasungarriak. Zaindu ezazu gordailu eder hau, guregan bizi den Espiritu Santuaren indarrez.

EBANJELIOA: Lk 17, 5-10

Aleluia: 1 Pe 1, 25

R/. Aleluia.

V/. Jaunaren hitzak betiko du irauten.

Eta hitz hori da, zuei hotsegin zaizuen berri ona. R/.

Sinesmena bazenute.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburitik

Aldi hartan, apostoluek esan zioten Jaunari: «Indar iezaguzu sinesmena». Eta Jaunak: «Mostaza hazia adinako sinesmena bazenute, masusta zuhaitz honi esango zenioke: "Atera zaitetz hondotik, eta bota erroak itsasoan", eta egingo luke zuen esana.

Egin dezagun, zuen morroia goldean edota artzantzari dela; landatik etxera etortzean, nork esango dio: "Zatoz eta jar zaitetz berehala mahaiari"? Ez ote dio beste hau esango: "Presta iezadazu afaria, jantzi gerrikoa eta zerbitza nazazu, nik jan eta edan arte; gero jango duzu eta edango zeuk"? Nagusiak zor al dio eskerrik morroiari, agindu zaiona egin duelako?

Berdin zuek ere: agindutako guztia egiten duzunean, esazue: "Morroi hutsal batzuk gara; egin behar genuena egin dugu"».

Oparigaien gainekoa

Onar, Jauna,

zeure aginduz egiten dizugun oparia;
eta, Zu goresteko ospatzen dugun Eukaristia honen bidez,
santu egin gaitzazu eta emaguzu zeure salbamena.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztiduna,
ogi-ardo hauetan hartu ditugun Kristoren gorputz-odolek
Beraren irudiko egin gaitzatela.
Jesu Kristo.